

OSTEGUNA

2021/05/13

9. urtea, 1.417. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

Amasa-Villabonan eginiko azterketak dio hitanoa bultzatzea nahi dutela gehienek

Hitanoak indarra galdu duela erregistro neutro edo zukaren mesedetan ikusi dute; herritarren %72k hitanoa bultzatzearen alde egin du // 2

Anoeta eta Asteasuko hiru gaztek Nera taldea sortu dute

‘Itsasoari begira’ kantua grabatu eta sareratu dute, eta abesti gehiago ari dira prestatzen; diskoa argitaratzea eta bertako musika zuzenean eskaintzea dute helburu // 4

Ostiralean hasiko da buruz burukoa, Jakaren hutsunearekin

Iñaki Artola, Jokin Altuna eta Jon Ander Peña izango dira eskualdeko ordezkariak; ostiralean Peña eta Ezkurdiaren artekoa izango da eta igandean Agirre eta Artola lehiatuko dira // 7



Patxi Amantegi ingurumen zinegotzia, Olatz Peon alkatea eta Egoitz Sorozabal hirigintza zinegotzia, atzo. JOSU ARTUTXA

Zumarditxikiaren proiektuaren idazketa esleitu du udalak

Tolosako Udalak Zumarditxikia berreskuratu nahi du, oinezkoek lehentasuna izango duten gune bilakatuz; datorren urte hasieran prest izan nahi du proiektua, eta legealdi honetan lanekin hastea aurreikusi du; aparkalekurako hainbat aukera ari da aztertzen // 3

H4 HERNANI LANBIDE HEZIKETA

GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII - CIPF INNOVACIÓN SOCIAL

Prestakuntza, lanbidea, etorkizuna



Tren geltokitik 5 minutura
eta autobusetik 2 minutura.

**ATE
IREKIAK**

Presentziala zein birtuala

MAIATZAK 19

Asteazkena

17:00etan eta 18:00etan

**OINARRIZKO
LANBIDE HEZIKETA**

- Elektrizitatea eta Elektronika
- Elementu Metalikoen Fabrikazioa

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mantentze- lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Animazio Soziokulturala eta Turistikoa

943 55 19 58

idazkaritza@hernanilah.eus

Karmelo Labaka 7, 20120 Hernani

www.hernanilah.eus

EMAN IZENA
HERNANILANHII



Hamarretik seiri hika gehiago hitz egitea gustatuko litzaieke

Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa egin dute eta galdetegiari erantzun dioten herritarren %72ak hitanoa bultzatzearen aldeko jarrera du

Jon Miranda Amasa-Villabona

Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa egin dute. Galdetegi bidezko ikerketa kuantitatiboa izan da eta emailtzak aurkeztu berri dituzte. Ondorio garbia atera dute: azken 30 urteetan Amasa-Villabonan euskararen ezagutza eta erabilera gorabehera gutxirekin mantendu bada ere, hitanoak indarra galdu du erregistro neutro edo zukaren mesedetan.

Garbiñe Bereziartuak eta Beñat Muguruzak Azpeitian soziolinguistika ikuspegitik hitanoari buruz egindako lana eza gutu zuten, duela bi urte, Uxoa Elustondo Arzallusek eta Ainara Ansa Irazustak, eta Amasa-Villabonan antzeko lan bat egiteko asmoari heldu zioten. Azpeitian zabaldu zuten galdetegia herrira egokitzen eta moldatzen urtebete eman ondoren jo zuten udalera laguntza eske. «Ikuspegi teknikitik Aztikerren laguntza izan dugu eta horrek dakarren gastua estaltzen lagundu digu udalak. Dena den, horrelako azterketen aurrekontuaren zatirik handiena landa lana izaten da eta hori guk geuk geuregan hartu dugu. Iruditzen zitzaigun gertutasun horrekin irabazi egiten zuela azterketak, eta buruhaustea eman dizkigun arren, oso prozesu aberasgarria izan da guretzat ere», aipatu du Ansak.

Joan den urteko azaroan banatu zuten galdetegia herritarren artean eta uste baino erantzun hobea jaso zutela aipatu du Elustondok. Guztira 504 herritarrek erantzun zioten galdetegiari. «Aztikerrekoek esan ziguten ikerketa baliagarria izan zedin, gutxienez 360 herritarrek parte hartu behar zutela, hori zela gutxieneko lagina. Askok poztu gi-



Asteartean Subijana etxean aurkeztu zituzten azterketaren emaitzak. J.M.

nen kopuru hori gainditu genuela ikusi genuenean».

Udaberrian jaso zituzten Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketaren emaitzak eta aste honetan aurkeztu dituzte jendaurrean. Interesa duenak udaleko euskara zerbitzuan eska dezake txosten mardula, ikerketa kuantitatiboaren emaitza guztiak biltzen dituen.

Amasa-Villabonan hitanoa erabiltzen duenaren profilaren berri eman du Elustondok: «Oro har, adin batetik gorako gizonezkoa izaten da hika hitz egiten duena, normalean bere adinkideekin aritzen da, eta haiek ere gehienetan gizonezkoak izaten dira». Azken hamarkadetan euskararen bilakaera eta hitanoarena ez dira paraleloak izan eta ikerketak frogatu ahal izan du 55 urtetik beherakoan artean, zuka dela nagusi Amasa-Villabonan.

Bilakaera horren atzean maila individual, mikro-sozial eta makro-sozialean dauden faktoreak nabarmendu ditu Ansak. Azterketak eman du ezagutzera, base-

rrian bizi edo familia baserri mundukoa duten herritarrek erabiltzen dutela gehien hitanoa. Honenbestez, gehiago dira egunerokoan hika entzuten duten amasarrak -%16,3-, billabonatarak -%6,3-baino. Dimentsio indibidualean ere jarri du arreta Ansak: «Erregistroa menperatzen ez dugulako, ingurukoek hika hitz egiten ez dakitelako edo lotsa sentitzen dugulako asko gara atzera egiten dugunak».

TRANSMISIOAN ETENA

Eremu formalean, nagusiki, euskararen erregistro neutro edo zukaren transmisioa eman da eta inkestak %65 baino gehiagok aitortu du familia edo lagunartean baino ez dutela izan hitanoarekin kontaktua. Bilakaera datuetan izan den beherakada ikusita, Elustondo kezkatuta agertu da etxeko transmisioan eman den etenarekin: «Galera indartsua da emakumezkoak tarteko dauden ekintza komunikatiboetan, bereziki emakumeen arteko

elkarriketetan. Semeari hiru aldiz errazago hitz egingo dio emakume batek hika, alabari baino». Joera horrek noka aritzeko ohitura desagerrarazi egin du ia Amasa-Villabonan.

Azken urteetan egin dira saio txoak eskualdean nokaren erabilera bultzatzeko. Azterketa honen atzean egon diren herritarren ustetan, gisa honetako ekintza gehiago bultzatu behar lirateke herrian. Ikastaroak, mintzalagun programak edota hikalaiak aipatu dituzte, besteak beste. «Transmisio galera hori oraindik ere handiagoa izan ez dadin, ni pertsonalki gehiago saiatuko nintzateke oinarri bat ematen. Hitanoa ezagutzen ez dutenentzat bitartekoak sortuko nituzke eta ikasmateria sortu, adibidez, eskoletan landu dezaten. Alde batetik baliabideak emango nituzke hitanoa presentegiteko, eta bestetik, espazioak sortu konplexurik gabe hika hitz egiteko», esan du Elustondok.

Aukeren artean ikerketa kualitatibo bat edo hitanoaren kale erabilera neurketa bat egitea ere proposatu dute bi herritarrek. Datuak patxadaz aztertu ondoren zehaztuko dituzte hurrengo urratsak. Modu guztietara, argi printzak badaudela esan du Ansak: «Galdetegia betetzerakoan jendeak nabarmendu digu ekimenaren beharra eta ikusi dugu badagoela gogo hitanoa bultzatzeko. %72ko aldeko jarrera azaldu digu eta aldi berean belaunaldi berriei hitanoa erakusteko proposamena egiten dute gehienek. Hika gehiago hitz egingo lukeela esan digu %61ek eta horietako asko gazteak dira. Belaunaldi gazteagoek gutxiago erabiltzen dute hitanoa, baina haien artean galtzen doa hizketa molde honen konnotazio negatiboa, erregistro informala aberasteko tresna bezala ikusten dute». Hitanoak bizirauteko erronka handia duela nabarmendu dute Elustondok eta Ansak, baina jarrera aldaketa horrek aukera berriak zabaltzen dituela uste dute. «Bazegon zer egina», esan diote elkarri.

‘Erretratu nomada’ egitasmoa iritsi da eskualdeko herrietara

Nomad Studiok herritarrei erretratuak atera eta herrietako argazki artxiboa osatzen lagunduko du; Alkizan abiatu dute bidea

Erredakzioa Alkiza

Eli Garmendia tolosarrak eta Carlos Pericasek osatzen dute Nomad Studio. Gaur egun, *Erretratu Nomada: Gipuzkoa* egitasmoa dute eskuartean. Aspaldiko argazkilariak egiten zuten bezala, Gipuzkoako hainbat herritara joan nahi dute herritarrei erretratuak atera eta argazki artxiboa osatzeko. Besteak beste, Alkizan izango dira igandera arte.

Garmendiak aipatu duenez herri txikiak bereizgarria bertako biztanleak dira: «Herrietara iritsi, gure estudioa muntatu eta ahal den neurrian biztanleei erretratu bana egitea da asmoa, erretratu horiek gero herriaren ondare bezala gera daitezten eta ondorengoek argazki horiek ikusi eta balora ditzaten». Umeak erraz animatzen direla diote Nomad Studioko kideek eta gehixeago kostatzen zaiela helduei.

Momentuan inprimatu eta bakoitzari eskura ematen diete argazkia eta posta elektronikoz ere bidaltzen diete, nahi izanez gero. Astearen amaieran, bisitatu duten udalaren esku uzten dituzte herrian egiten dituzten erretratu guztiak eta proiektuaren www.retratonomada.com webgunean ere zintzilikatzen dituzte, herri bakoitzaren kronika txiki batez lagunduta.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Meta! deialdiaren bidez abiatu zuten proiektua Garmendiak eta Pericasek, Goteo Fundazioarekin batera. Mikromezenasgoaren bidez 13.048 euro bildu zituzten. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ekarpenarekin batera 150 pertsonen dohaintza jaso, eta horri esker, Gipuzkoako 8 herritan ariko dira datozen asteetan.

ERRETRATU NOMADA

Maiatzaren 10etik 16ra. Alkiza.

Maiatzaren 24tik 30era. Altzo.

Maiatzaren 31tik ekainaren 6ra.

Baliarrain.

Ekainaren 14tik 20ra. Orendain.

Ekainaren 21etik 27ra. Orea.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Garbiketa lanak. Tolosan, gariketan esperientzia duen mutil baten bila gailtza, asteleheneetik ostiralera, lalnaldi osorako. Gidabaimena izatea ezinbestekoa da. Interesatuak deitu 943 67 06 26 zenbakira.

Zumarditxikia berreskuratzeko aparkaleku posibleak aztertzen

Herriko erdigunean dagoen eremua tolosarren eskura jartzea da Tolosako Udalaren lehentasunetako bat; bide horretan, proiektuaren idazketa esleitu du

Erredakzioa Tolosa

Zumarditxikia berreskuratu nahi du Tolosako Udalak eta bertan oinezkoen lehentasuna emateko, oinezkoen mugikortasuna sustatzeko, ibilbideak bultzatzeko eta espazioaren kalitatea hobetzeko konpromisoa hartu duela esan du, Mugikortasun Planarekin bat eginaz. Proiektua estrategikoa dela esan du Olatz Peon Ormazabal alkateak: «erdiguneari arnasa eta herritarrei aukera berriak eskainiko dizkien proiektua da, horregatik lehentasunezko gaia da guretzat eta ematen ari garen pauso guztiak dira garrantzitsuak; datorren urte hasierarako prest izango dugu proiektua eta ondoren obraren lizitazioa abiaraziko dugu legealdi honetan lanekin hasteko». Izan ere, 2019-2023 Legealdi Planean jasotako proiektua da Zumarditxikiarena.

Bide horretan proiektuaren idazketa esleitu dute jada, eta Sestra Ingenieria y Arquitectura enpresak egingo du. Idazketak bi epe izango ditu; azterketa lana eta dauden alternatiben arteko konparaketa egingo dituzte lehenik, eta exekuzio proiektua idatziko dute ondoren.

Horrekin lotuta herritarrek proiektuan parte hartzeko aukera izango dutela esan du udalak eta proposamen eta ekarpenak jasotzeko eta proiektua herritarrei aurkezteko saioak antolatu dituzte. Sestra enpresak 7 hilabete izango ditu lan horiek egiteko eta aurreikuspena da udalak urte hasierarako jasoko



Zumarditxikiaren atzoko ikuspegi orokorra. J.A.D.

duela proiektua. 2022an bertan jarriko dute abian obra egiteko lizitazioa, asmoa baita lanekin legealdi honetan bertan hastea.

APARKALEKUAK

Zumarditxikian egun aparkatzen diren auto guztiak lekualda-

tu beharko dira etorkizunean, eta aparkaleku arazoari irtenbidea eman asmoz hainbat aukera aztertzen ari da udala. «Aukera guztiak sakonki aztertzen ari gara. Herritarren beharrak ari gara kontuan hartzen, baina baita ere kostuak, gastuak eta trafi-

koan izan dezakeen eragina, bai oinezkoengan, mugikortasunean, herriko sarrera-irteeratan eta ingurumenean. Datu horiekin guztiakin bideragarri eta egokiena den neurria hartuko dugu», esan du Egoitz Sorozabal Hiri-gintza eta Lurralde arloko zinegotzi arduradunak.

Zumarditxikiaren kokagunea bereziki interesgarria dela uste du udalak; Oria ibaiaren ertzean dago, erdialdetik oso hurbil eta «tolosarrei era askotako erabilera eskainiko dizkie».

Parke erabilera eman nahi diote espazioari, aisialdirako berdegune berri bat eratuta, hirigune historikoari arnasa emateko helburuarekin. «Espazio naturala goa, inklusiboagoa, irisgarriagoa eta bateratuagoa izango da, espazio libre osoari izaera bateratua emango zaiolako. Naturarekiko harremanak sustatuko ituen eremua izango da hirigintza eredu jasangarrien bitartez, eta gizarte ekimenak antolatze-gunea ere izango da: kontzertuak, azokak, kale antzerkiak eta era askotariko jarduerak bertan garatzeko eta genero perspektibari dagokionez, eremu segurua izango da». Ingurumen ikuspegi aipatu du ere alkateak eta esan du ingurumenarekiko errespetua izango duen diseinua garatuko dutela, eraikuntza jasangarri eta arkitektura iraunkor-ekologikoak sustatuz, energia berriztagarriak erabiliko direlarik eta bertako landaretza mantendu edo hobetuko dutelarik, hegazti espezieen habitata zaintzeko.

Bertso jarrien kantaldia larunbatean, Larraulen

Ekitaldia ikusteko ez da sarrera nahiz gonbidapenik behar; saioa 18:00etan izango da parkeko belardian

Erredakzioa Larraul

Harituz Bertsozale Taldeak bertso jarrien kantaldia antolatu du beste urte batez. Larraulen izango da aurtengo ekitaldia, larunbatean, 18:00etan hasita. Eguraldi ona egingo balu, parke zaharreko belardian izango da kantaldia, eta euria egingo balu, berriaz, elizan. Eskualdeko bertsolari eta bertsozaleek bertso sorta berriak nahiz historikoak abestuko dituzte Aitor Atxega gitarristak lagunduta.

Aurtengo ekitaldia berezia izango da, besteak beste, hainbat larrauldarrek euren sortak presatu eta abestuko dituztelako herritarren aurrean, tartean, eskolako haurrek eta oholtza gainean inoiz gutxitan ikusi ohi den jendea ere ikusi eta entzun ahal izango da ekitaldian.

ELAk Kelsen enpresako heriotza salatu du

Erredakzioa Aduna

Sindikatuak elkartasuna eta babesa azaldu die astelehenean Adunako Kelsen enpresan bihotzekoak jota hildako langilearen senitarteko, lagun eta lankideei. «Badirudi modu honetako lan-istripu hilgarriek (iktusak, bihotzekoak eta abar) ez dutela lanarekin zerikusirik; aldiz, azken urteetako datuei erreparatzen badiugu ikusiko dugu 2020an lan-istripu baten ondorioz hil ziren langileen %25 istripu ez traumatiko baten eraginez zendu zirela. Aurtengo datuei erreparatzen badiugu, lanean zendu diren 23 langiletik 5 zendu dira istripu ez traumatiko baten eraginez. Datuak oso argigarriak dira iruditzen zaigu eta hauen atzean dauden benetako arrazoiak Institutioek zein patronalek sakon aztertu beharko lituzkete».

14

POSITIBO BERRI

Aspaldi ez bezala eskualdeko hiru herritan bakarrik atzeman dituzte positiboak; Tolosan 9, Zizurkilan 4 eta Berastegin bakarra. Osasun sailak emandako datuen arabera, 9.684 test diagnostiko egin zituzten herenegun, eta horietatik, 479 (%4,9) positiboak izan ziren, 149 Gipuzkoan.

Trikitixa topaketak egingo dituzte Otabardin

ASTEASU // Trikitixa topaketak egingo dituzte Asteasun, ekainaren 25etik 27ra bitartean, 2001 eta 2004 urteen artean jaiotako gaztetxoentzat. Otabardi aterpetxean bilduko dira parte hartzaileak eta hainbat ikastaro jasoko dituzte. Izen emateak maiatzaren 25era arte egin daitezke, trikitixa@trikitixa.eus helbidean.

Larunbateko San Isidro eguna ospatzeko ekitaldiak

BIDANIA-GOIAITZ // Baserritarren eguna ospatuko dute etzi Bidania-Goiatzen. 12:00etan meza izango dute eta 14:00etan bazkaria Goiazko Herri Ostatuan. Udalak 10 euroko txartelak banatu dizkie baserritarrei eta gainerakoa ordaindu beharko dute. Bazkarira joateko izena eman behar da udaletxera deituta.

Hitzaldia eta kontzertua, urtemuga ixteko

ANOETA // Hilabete osoko egitaraua antolatu du Anoetako Gazte Asanbladak, gaztetxearen urterrena ospatzeko. Orain arteko ekitaldiak arrakastatsuak izan dira eta egitaraua ixteko beste bi hitzordu iragarri dituzte. Gaur 18:00etan Askapenaren hitzaldia izango da eta bihar 18:30ean Serge bakarlariaren kontzertua.



Iñaki Mujika asteasuarrak eta Xabi Zubeldia eta Txomin Urdanpilleta anoetarrek osatzen dute Nera taldea. J.M.

Nera musika taldea sortu dute eskualdeko hiru gaztek; 'Itsasoari begira' kantua grabatu eta sareratu dute; kantu berriak prestatzen ari dira, zuzenekoan zain

Kantu batetik, talde bat

Jon Miranda

Ez zuten horrelako harrera berorik espero. Nera talde sortu berriak martxoaren 19an sareratu zuen *Itsasoari begira* kantua eta berehala zabaldu zen jendartean. Sortu duten abestiak izan duen zabalkundearekin «oso gustura» agertu dira taldeko kide Xabi Zubeldia (Anoeta, 1999), Iñaki Mujika (Asteasu, 2002) eta Txomin Urdanpilleta (Anoeta, 1998).

Zubeldiak sortutako kantu horretan dago taldearen sorburua. Iaz, itxialdian bete betean geundela sortu zuen *Itsasoari begira*: «Denontzako izan ziren garai zailak eta egun berean emozionalki gora-behera handiak izaten genituen. Nik hori guztia azaleratu nahi nuen musikaren bitartez, gitarra hartu eta ba-

rruan neramana azalarazten saiatu nintzen».

«Kantautore» gisa definitu du bere burua Zubeldiak eta duela bospasei urte gitarra jotzen ikasi zuenetik emanaldiak eskaini izan ditu bakarlarari gisa. «Kantuak sortzerakoan beti saiatzen naiz nire bizipenetatik abiatzen eta gertatu izan zaizkidan istorioak eramaten ditut hitzetara». *Itsasora begira* kantuarekin hasieratik izan zuen argi zer egin, estudioan grabatu nahi zuen.

Asmo hori buruan zuela batu zitzaizkion proiektura Urdanpilleta eta Mujika. «Nik Txomin beldaniko ezaguna dut eta bane-kien aurretik Bihozkada taldean ibilia zela. Berak komentatu zidan kantua osatzeko bere lehengusu batek, Iñakik, lagundu ziezagukeela eta horrela jarri ginen martxan», esan du Zubeldiak.

Norberak bere ukitua eman dio oinarri bezala aurkeztutako

bertsioari. Horrela azaldu du Mujikak: «Xabik kantua aurkeztu zigunean gustatu zitzaigun eta pixkana osatzen joan gara, gure ekarpena eginez. Niri, adibidez, metal progresiboa gustatzen zait gehien, baina beti saiatzen naiz musika estilo berriak ezagutzen eta gauza *poperoagoak* egiten ere oso gustura nabil». Urdanpilletak aitortu du Zubeldiak eta biak gehiago kointziditzen dutela musika zaletasunean eta gehienbat pop-rock estilora jotzen dutela. Berri Txarrak, Sinsinati eta Muerdo bezalako taldeak aipatu dituzte eraginen artean.

Itsasoari begira piezari norberak bere ekarpena egin ondoren erabaki zuten hiruek Mutrikuko AME estudioan kantua grabatzea, Axular Arizmendi ekoizlearekin. «Asko lagundu digu abestiari beste ikuspegi bat ematen. Moldaketak egin dizkio eta gita-

rra elektrikoa, baxua, bateria eta bigarren ahotsa gehituta, beste itxura bat du», adierazi du Zubeldiak.

NERA SORTUDA

Bi egun eman zituzten kantua grabatzen Mutrikuko estudioan eta emaitzarekin «oso gustura» agertu dira taldekideak. Hain zuzen, Arizmendik proposatu zien hiruei taldea osatzea. «Hasieran zalantzak izan genituen, baina buelta batzuk eman genizkion eta animatu ginen. Proiektu bat badagoela ikusi dugu, abestiak ere baditugu, beraz, aurrera egittea erabaki dugu».

Zubeldiak berak gitarra akustikoa eta ahotsa jartzen ditu, gitarra elektrikoa eta baxua Mujikak, eta perkusioa, azkenik, Urdanpilletak. Nera izena zergatik aukeratu duten azaldu dute taldekideek: «Hasiera batean Talka izena pentsatuta geneukan, bai-

na sare sozialetan gure kontuak sortzen hasi ginenean konturatu ginen izena hartuta zegoela. Beste aukera batzuk ibili genituen buruan eta azkenean Nera izena iruditu zitzaigun aproposena. Ez du esanahi berezirik, sinplea da, motza, ahoskatzeko erraza eta pentsatzen dugu jendeari erraz geratuko zaiola buruan».

«Xabik kantua aurkeztu zigun eta pixkana osatzen joan gara, gure ekarpena eginez»

IÑAKI MUJIKA
NERA TALDEA

«Kantuak sortzerakoan beti saiatzen naiz nire bizipenetatik abiatzen»

XABIZUBELDIA
NERA TALDEA

«Sare sozialak dira jendearengana iristeko bidea. Kontzertu gabe aukera bakarrenetakoa da»

TXOMIN URDANPILLETA
NERA TALDEA

Jendearengana iristea baitute helburu taldekideek. Urdanpilleta: «Gaur egun sare sozialak dira jendearengana iristeko bidea. Kontzerturik gabe, aukera bakarrenetarakoa da eta aprobe txatu beharra dago». Youtube eta Spotify plataformetan jarri dute entzungai *Itsasoari begira* eta kontua zabaldu dute Instagramen. «Nik ez dut mundu hau gehiegi kontrolatzen baina Txominek eta Iñakik esperientzia handiagoa dute eta inguruan badiugu lagunak logoa diseinatu eta kantuak plataformetara igo tzen lagundu digutenak», esan du Zubeldiak.

Lagun artean osatu nahi dituzte hurrengo kantuak. Pare bat prestatu ditu dagoeneko Zubeldiak eta horiek entseatzeko orduan jende gehiago ere gonbidatu dute: «Kantu batean saxofoia sartu nahi genuke eta ezaguna dugun lagun bati esan diogu. Momenturo sortzen zaigun gogo eta beharraren arabera joango gara kolaborazioak bilatzen».

Helburua kantu berriak sortu eta horiek grabatu ahal izatea da, «pixkana». Disko bat argitaratzea gustatuko litzaieke hiruei, eta noski, zuzenekoak eskaintzea: «Prest gaude edozein lekutan jotzeko, gurekin harremanetan jartzea besterik ez dute». Sare sozialetan topatuko du jendeak Nera taldearen erreferentzia.

Antton Arrietak 'Euskal Herriko gazteluak - Gipuzkoa' liburua argitaratu du; Tolosaldeko bi gaztelu jaso ditu: Abaltzisketa eta Zaldibia arteko mugan dagoen Ausa Gaztelu eta Albizturko Mendikute

Erdi Aroko gazteluen arrasto bila

Jon Miranda

Mende laurdena baino gehiago darama Antton Arrietak (Lima, Peru, 1955) arkitektura militarra zerrendatzen, eta bereziki, Erdi Aroko gaztelu eta dorretxeak aztertzen. 2006an *Gipuzkoako gazteluak* liburua argitaratu zuen eta ordutik buru-belarri ibili da Euskal Herriko gazteluak erroldatzen. Arabari eta Bizkaiari dagozkionak argitaratu ondoren, urtarrelean kaleratu du *Euskal Herriko gazteluak - Gipuzkoa* liburua. Duela 15 urte baino zortzi gaztelu gehiago jaso ditu lan berrian, orotara 20.

Erdi Aroko gaztelu kontsideratzeko zein baldintza bete behar diren azaldu du Arrietak: «Ikuspegi arkitektonikotik dorre eta harresien konbinazioak egon behar du, eta nolabait, gune bat inguratu behar du, itxitura zentzua edukitzen dute gazteluek». Askotan gaztelutzat hartzen dira beste gisa bateko eraikinak ere eta zehaztapenaren beharra azpimarratu du ikertzaileak. «Gehiengintan kutsu militarra duen edozein egiturari gaztelu esaten zaio. Nik gotorleku bezala definitzen ditut fuerteak, dorretxeak, jauregi gotorrak edo etxe gotortuak eta baita gazteluak ere».

Argitaratu berri duen liburuan, 2006koan jasotako aipamen edo leku izen batzuen jatorria argitu du egileak eta honenbestez Gipuzkoako Erdi Aroko gazteluen erroldatik baztertu. Eskualdeko bi ale «bitxi» azpimarratu ditu Arrietak: «Tolosako Aldaba auzoko Gaztelusoro eta Gaztelubide toponimoak erroldatuak genituen, baina dirudienez, izen horiek 1795ean eraikitako gotorleku batetik erator daitezke, Erdi Arokan kanpora, beraz. Konbentzio gerran Tolosa eta Azpeitia arteko bidea zaintzeko egindako gotorlekua zen». Berdina gertatzen da Tolosako hirigune gainean dagoen Gaztelumalda toponimoarekin: «1813an Gasteizko gudua galdu ostean, pixkana atzera egiten ari ziren Frantziako osteak malda horren goialdean kokatu ziren, aliatuak gelditu nahian».



Abaltzisketa eta Zaldibia arteko mugan dagoen Ausa Gazteluren irudia, atzean Txindoki mendia duela. ANTON ARRIETA



Ezkerrean Tolosaldeko gazteluen mapa eta eskuinean Antton Arrieta kaleratu duen liburua eskuetan duela. J.M.

Gipuzkoan Erdi Aroan erroldatutako 20 gazteluetako bi baka-rik kokatzen dira Tolosaldean: Albizturko Mendikuten bata eta Abaltzisketa eta Zaldibia arteko mugan bestea, Ausa Gaztelu izenekoa. «Gaztelu gehiago aurkitu dira Gipuzkoako hegoaldean, erdialdean edo iparraldean baino. Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian ez bezala, abeltzaintzarekin lotura estua zuten gazteluen kokaguneek. Abelbideen ondoan eta larrean sarreretan agertzen dira arrastoak. Kontuan hartu behar da Tolosaldea udako eta neguko larre nagusien artean dagoela,

Aizkorriko eta Aralarko belardien eta kostaldearen artean. Pasabide garrantzitsua zen, beraz, pentsatzekoa da gaztelu gehiago egongo dela inguru hauetan», esan du Arrietak.

ERROLDA LUZATZEKO AUKERA

Euskal Herriko gazteluak - Gipuzkoa liburuan gaztelu gehiago aurkitzeko aukeren berri ematen du Arrietak. Zantzu guztiak zaizkio baliagarri arrastoaren bila jarraitzeko: toponimia, dokumentazioa, txosten arkeologikoak, agiritan topatutako aipamenak, aztarnak... Ikertzailearen ustez

datozen urteetan beste 10-15 gaztelu gehiago sartu daitezke Gipuzkoako Erdi Aroko gazteluen zerrendan.

Berriak aurkitzeko ahalegin horretan beste bide bat osatzen dute jauntxoan Erdi Aroko egoitzek, dorretxe eta jauregi gotorrek. Bizkaian, Araban, Nafarroan eta Iparraldean leinuen gazteluak ohi-koak badira ere, Gipuzkoan bat berari ez diote, orain arte, maila hori eman. «Eraikin nagusiaren inguruan indusketak egiten hasiz gero, horietako batean baino gehiagotan harresiak eta lubanarroak topatuko litezke», esan du

Arrietak. «Erdi Aroko kroniketan *fortaleza* izenarekin ageri dira».

Amasa-Villabonako Larrea aipatu du ikerlariak adibidetzat: «Nafarroako erresumako armada bi aldiz eraso zion Larrea gotorlekuari 1330. urtean, baina ez dago argi bere gain hartzea lortu ote zuten edo ez. Agiritan jasota

**Datozen urteetan
beste 10-15 gaztelu
gehiago sartu daitezke
Gipuzkoako gazteluen
zerrendan**

geratu dira setiorako eta erasorako egurrezko tramankuluak egiteko administrazio nafarrak nola-ko ordainketak egin zituen. Oso eraikin gotorra zenaren adierazlea da». Amezketako jaunaren egoitzarekin, gaur egungo Jauregi Handirekin, edota Tolosako Iurramendin zegoenarekin ere hipotesi bertsuak egin ditu Arrietak.

Ugariak dira gaztelu hitza daramaten leku izenak Tolosaldean. Karlismaldian asko ugaritu ziren gisa horretako toponimoak, baina agiritan garai horren aurreko zantzuak ere topatu izan ditu Arrietak. Alkizako Otsagazteluetan, Asteasuko Andazarraten dagoen Gazteluko haitza, Berastegi-ko Argaztelu edota Zizurkilgo Gazteluerreka. «Gaztelu hitzarekin batera askotan dakar toponimoak haitzaren erreferentzia eta hori gertatzen da, haitza bera, elementu geografikoa baliatzen zutelako eraikina zutitzeko. Guretzako beste aztarna bat da hori balizko gazteluen arrastoak aurkitzeko», dio Arrietak.

Latineko *turris* hitzetik dato-rron erroa daramaten izenetan jarri du arreta Arrietak: «Interesgarria da oso leku-izen horiei begiratzeara. Eskualdean Albiztur eta Uzturre bezalakoak ditugu. Amasan ere badago Lastur mendia eta bertan aztarnak aurkitu ditugu, nahiz eta lur horietatik gasbidea sartu zuten. Pentsatzen dugu eremu horretan egon litekeela zerbait. Deigarria da, herritarrek nola deitzen dioten tokiari *Sasonen kakapila*». Arrasto hauek jarraituz Gipuzkoako Erdi Aroko gazteluen errolda handitzen jarraitzeko asmoa du Arrietak.

‘Lurretik zartagira’ ekonomatoa zabaldu dute

Baliarraingo Udalak ideari forma eman dio herritarren parte hartzea bultzatuz, eta ekonomatoa zabaldu du udaletxe azpian hainbat ekoizleren produktuekin

Eneritz Maiz Etxarri Baliarrain

Baliarraingo Udalak ekonomatoa martxan jarri du udaletxe azpiko lokalean. *Lurretik zartagira* izena jarri diote proiektuari, eta helburua, besteak beste, bertako produktuak herrian bertan erosteko aukera izatea da.

COVID-19aren eragina dago udalak martxan jarri duen ekimenaren atzean: «Etxez etxeko banaketan hasi ginen pandemia garaian. Batetik, produktuak ezin saldurik zebiltzan produktoreei laguntzeko, eta bestetik herritarrek herriatik ahalik eta gutxien mugitzeko». Horrez gain, «bertako produktuen alde teoriatik praktikara pasa nahi genuen», azpimarratu dute udaletik. Herrian beste zerbitzu bat jarri dute, eta honekin, bertako produktuak eskuragarri jarri dizkiete baliarraindar guztiei.

Ekonomatoa martxan jarri ahal izateko, parte hartze prozesu baten bidez herritarren ideiak jaso ditu udalak. Lokalean bertan galdera batzuk daude jarrita, eta herritarrek beraiei ideia eta eskaerak idatzi dituzte bertan. Hortik tiraka udalak proiektua garatu du, eta forma eman dio ekonomatoari.

Herrikoia eta autogestionatua izatea nahi dute, eta era berean, antolaketa sinplea izango duena. Esaterako, urtean batzar bat egingo lukete. Eta erosketak egiterakoan norbera arduratsua izatea nahitaezkoa izango da.

Ekonomatoarekin, zuzeneko



Ekonomatoak itxura hartu du, eta dagoeneko Euskal Herriko eta gertuko produktu asko erosi daitezke. E. MAIZ

salmenta egingo dute. Honela, produktuei, %10a baino ez zaie aplikatuko. «Hainbat zentro komertzialetan baino prezio hobekak, herritarrentzat eta baita ekoizleentzat ere», nabarmendu dute udaletik.

Ilusioa da nabari dena udal ordezkarien artean. Udaletik herriara begira egin dute; «baina herritarrek kudeatu beharrekoa da, eta baita herriko bilakatu beharrekoa ere».

Dagoeneko ekonomatoak bete itxura du, baina oraindik ere Euskal Herrikoak diren produktuak sartzen ari dira. Xaboietatik hasi, eta jan-edanerako diren hainbat produktu daude erosteko: esnekiak, haragia, txokolatea, olio, arrautzak, eztia, pasta, era guztietako kontserbak, kafea, ... Granelean ere eskaintza



Bazkide eginez gero, erosketak nahi denean egin ahal izango dituzte. E. MAIZ

zabaldu nahi dute hondakin gutxiago sortzeko. Eta hainbat produktu eskariaren arabera jasoko dituzte, barazkiak, kasu.

Ekonomatoak auzolana izango du oinarrian. Herritarrek bazkide egitea nahi dute, eta horre-

la, asteko zazpi egunetan 24 orduz izango dute erosketak egiteko aukera. Giltza izango lukete bazkide direnek. Bazkide bakoitzak helburua ekonomatoari urtean bost ordu eskaintzea izango da, irekita eduki ahal izateko.

EKONOMATOA

Produktoreak

Larreta. Orendain, 10 km.
Xubero. Ikaztegieta, 4 km.
Urruzola. Alkiza, 20 km.
ON! zumuak. Zizurkil, 22 km.
Besabe. Legorreta, 5 km.
OnEin. Hernani, 30 km.
Candido Besa. Araba, 130 km.
Argaia Goena. Amezketa, 16 km
Olalde. Legorreta, 5 km.
Eguzkileire. Amezketa, 14 km.
Behieko. Olaberria, 15 km.
Aranburu. Zizurkil, 22 km.
Iturri. Nafarroa, 107 km.

*Produktu berriak sartzen ari dira.

Bazkide egiten ez direnen kasuan, ostegunetan ordubetez izango dute irekita. Irekita dagoen unean «herri giroa» sortzen dela adierazi dute, eta herritarren arteko harremanak sendotzeko balio duela ikusi dute.

Zalantzaren bat duena ostegunetan gerturatu daiteke ekonomatora bertara edo udalarekin jar daiteke harremanetan.

TXIKITASUNETIK ERAGITEN

Garbi dute oso txikiak direla, baina era berean, txiki askok eginda eragin dezaketela gizartean. Egunero gutxienez hiru aldiz jaten dela azpimarratu dute, eta erosketak bakoitzarekin eragin daitekeela, eta udaletik herritarrengan ere eragin nahi dute.

Baserriari bultzada emango diote honela, eta horrek ordainetan landa eremuko paisaia mantentzea ahalbidetzen die. Gainera, bizi kalitatean du eragina eta baita kalitatezko produktuetan ere. Produktuak bertatik bertakoak dituztela eta, «honekin guztiarekin eman bai, baina jaso ere bai» egiten dutela azpimarratu dute.

Bi urterako herri apustua egin du udalak, eta *Lurretik zartagira* ekimenak bizirik jarraitzeko ezinbestekoa izango dute herritarren parte hartzea.

Hilberriak eta urteurrenak



Ainara Urretabizkaia Arostegi

Atzo hil zen 42 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

*Erreza izan zen zu maitatzea
ezinezkoa ordea zu ahaztea.
Beti gurekin izango zara.*

Osaba-izebak: Rosario(t) eta Manolo(t), Enkarni eta Angel, Juan Mari(t), Blanki eta Jose, Paulo(t), Jose Ramon; lehengusuak: Juan Miguel, M^a Karmen eta Jose Mari(t), Ione eta Teo, Monika eta Asier, Jose Javier eta Ixiar, Julen.

SEGURAn, 2021eko maiatzaren 13an.



Dioni Uzcudun Yarza

Maiatzaren 12 hil zen, 72 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

*Adarra jotzea
eta gu xirikatzeta
gogoko zenuen,
faltan botako dugu
zure umorea.
Gure bihotzetan
eramango zaitugu.*

Ilobak: Iñaki, M^a Jesus eta Gorka, M^a Jesus eta Iñaki, Begoña, Eli eta Jon Ander, Estibaliz eta Joseba, Veronica eta Iñaki. Iloba-txikiak: Oier, Enara, Saroi, Maren, Eki, Markel eta Luken.

ANOETAN, 2021eko maiatzaren 13an



Aitana Jarrita Urola Kosta eta Goierriko Hitzeran DOAN

ESKELAK

ataria@ataria.eus •
Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenara
18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte
hartzen ditugu

Ait Chaou eta Olano Espainiako Kopan, Euskal Selekzioarekin

ZIZURKIL-ALTZO// Igande hone-
tan, mendiko lasterketen linea-
ko Espainiako Kopako bigarren
proba jokatu da Miranda de
Ebron. Euskal Selekzioak hartu-
ko du parte, eta tartean izango
dira Hassan Ait Chaou zizurkil-
darra eta Iñaki Olano altzotarra,
Amaia Razkin, Ander Barrene-
txea, Andrea Garay, Asier Larru-
zea, Beñat Katarain, Iñigo Alzo-
la, Xabier Lete eta Xabier Za-
rranzekin batera. 35 kilometro
eta 1.900 metro desnibel positi-
bo izango ditu lasterketak eta
Miranda inguruko gailurretatik
igaroko da. Peña el Rayo gailurra
izango da igoera gogorrena, 956
metroko altuerarekin. Antonio
Machado parkean hasi eta amai-
tuko da.

Herri kirol saioa izango da asteburuan Leaburun

LEABURU-TXARAMA// Larunba-
tean jokatu da Urrezko bana-
kako aizkolari txapelketako kan-
poraketa, 12:00etan, Leaburuko
industrialdean. Bederatzi aizko-
larik hartuko dute parte: Jokin
Urretabizkaia *Basozabal*, Joxe-
an Etxeberria, Manuel Fraile,
Emilio Garcia, Xuban Kañama-
res V, David Naredo, Patxi Min-
degia, Iban Resano eta Luis
Txapartegi. Herri kirol saio ho-
rretan, Hiru hamarrek harri-ja-
sotzaile txapelketa ere jokatu-
ko da eta Urdax Magunazelaiak
hartuko du parte. Emakumez-
koen harri-jasotzaile txapelke-
tan, berriz, Udane Ostolaza ariko
da.

Kolore gorriarik gabe abiatuko da Buruz Buruko Txapelketa

Erik Jakaren hutsunea izango du aurtengo Buruz Buruko
Pilota Txapelketak; ostiralean emango zaio hasiera
Azkoitian, Ezkurdia eta Peña II.aren arteko partidarekin

Irati Saizar Artola

Kolore gorriarik gabe, txapelduna
tartean ez dela emango zaio ha-
siera Buruz Buruko txapelketari,
ostiral honetan, Azkoitian. Atzo
eman zioten alta Erik Jakari, bai-
na lau eta zortzi aste bitartean
beharko ditu osatzeko. Beraz,
ezin izango du Baikorekin estre-
inako txapelketa jokatu. Hortaz,
hiru izango dira eskualdeko or-
dezkariek: Jokin Altuna, Iñaki
Artola eta Jon Ander Peña.

Atzo goizean egin zuten aur-
kezpena Donostian, eta bertan
izan ziren txapelketan parte har-
tuko duten hamabi pilotariak,
enpresa bakoitzetik sei: Baikotik,
Mikel Urrutikoetxea, Asier Agi-
rre, Oinatz Bengoetxea, Jon An-
der Peña, Iñaki Artola eta Axier
Arteaga ariko dira; eta Aspetik,
Jokin Altuna, Joseba Ezkurdia,
Danel Elezkano, Dario Gomez,
Jose Jabier Zabaleta eta Beñat
Rezusta.

Ostiralean ekingo zaio txapel-
ketari: Ezkurdia eta Peña II.a ari-
ko dira, Azkoitian. Irabazleak Al-
tuna III.aren aurka jokatu behar-
ko du hilaren 23an, Donostian.
Larunbatean, berriz, Zabaletak



Donostiako Kursaaletan egin zen atzo goizean txapelketaren aurkezpena. A. IMAZ

eta Arteaga II.ak jokatu dute,
Iruñean, eta bien arteko irabaz-
leak Darioren aurka jokatu be-
harko du; partida hau ere maia-
tzaren 23an izango da, Donos-
tian. Igandean, berriz, bi
neurketa jokatu dituzte Bil-
bon: Agirre, Artolaren aurka, eta,
Bengoetxea VI.a, Rezustaren
kontra. Rezustaren eta Bengoe-
txea VI.aren artekoak Elezkano
II.a izango du aurkari, hilaren
21ean, Idiazabalen; eta Agirreren
eta Artolaren artekoak, Urruti-

koetxea, hilaren 22an, Bilbon. Fi-
nala, ekainaren 13an jokatu-
ko da, Bilbon.

Aurten ere, momentuz, har-
mailetan ikuslerik gabe jokatu
beharko dute txapelketa. «Ea
nola doan txertaketa, baina oso
zaila izango da ikusleak izatea»,
esan du Inaxio Errandonea As-
peko zuzendari komertzialak.
Kasu honetan, enpresek onartu
egin dute txapelketan zehar boti-
lleroak kantxan izateko pilota-
riek egin duten eskaera.

aritu da orain arteko partidetan,
eta eskarmentua duenez, orain-
goan ere erantzungo du. Goena-
ga-Fernandez, berriz, biko ore-
katua da, eta lehen partida galdu
bazuten ere, geroztik gora egin
dute, eta bikote arriskutsua izan-
go da finalean.

Ondoren, xareko azken parti-
dan, Gipuzkoako jubenil maila-
ko finala izango da jokoan. Men-
dizabal-Isasa II.ak, Zabalegi-
Iturberen kontra jokatu dute.
Mendizabal-Isasa II bikoak joka-
tutako partida guztiak nahiko
erraz irabazi ditu, baina finalak
desberdinak eta arriskutsuak
dira. Hauek orain arte bezain fin
eta ondo jokatu beharko dute,
Zabalegi-Iturbe bikoak gora egin
du eta.

Puntuak gora



Aulkitik

Lore Etxaburua

Tolosa CF, 1. Maila Nazionalea

Igandea eta 10:00ak, ordu
ederra Iurren elkartzeko.
Batzuk beste batzuk baino
gorrituago zeuden, aurreko
eguneko eguzki izpi guz-
tiak beraientzat hartu ondoren...
(Zer moduz egin zenuten lo Ma-
ria eta Mireia?) Partida honekin
batera hasiera eman genion bi-
garren itzuliari, beraz, aurkariak
zertxobait ezagutzen genituen.
Logroñesen aurkako partida zen
eta han 1-leko emaitza lortuta gi-
nen. Helburua argi geneukan: 3
puntuak etxean geratzea, baina,
tamalez, ez zen horrela izan.

Partida hasieran baloiaren ja-
betza ez zen inorena izan, baina
gure jokua eginez eta baloi guz-
tiak borrokatuz, atsedenaldea
baino lehen Zuriren golari esker
lortu genuen markagailua ireki-
tzea eta atsedenaldira 1-0 aurre-
tik joan ginen. Bigarren zatian,
lehen 25 minutuak ez ziren gure
minuturik onenak izan eta ho-
rrekin batera iritsi zen beraien
berdinketaren gola. Guk lanean
jarraitu genuen eta horren adibi-
de garbia dira bukaeran izanda-
ko aukerak, baina, baloia ez zen
sarean sartzen eta 1-leko emai-
tzarekin amaitu zen partida. Ga-
rrantzietsuena puntuak gehitzen
joatea da gure helburua lortzeko.

Orain 5 final geratzen zaizkigu
eta gogor entrenatu behar dugu
gero partiduetan azaleratzeko.

Pauso txikiz aurrera! Aupa
neskak!

Xareko finalak jokatu- ko dituzte larunbatean, Iruran

Erredakzioa Irura

Xareko I. Irurako Irekiak eta Gi-
puzkoako Txapelketen finalak
jokatu dituzte larunbatean,
goizez eta arratsaldean, Irurako
Ametsa trinketean.

Goizez, 11:30ean, gaztetxo-
en mailako Murua II-Arsuagak, Mu-
rua I-Calongeren kontra jokatu-
ko dute. Bi aurrelariak, anaiak
eta bikiak, antzeko jokoa dute,
eta, atzean ere, Arsuaga eta Ca-
longeren artean ez dago alde na-

barmenik. Hala ere, Murua II-Ar-
suaga dira faboritoago, jokatu-
ko partida guztiak irabazi dituz-
telako.

Bigarren partidari, gazteen
mailako Galartza II-Aristik, Mai-
za-Herasen kontra jokatu-
ko dute. Galartza-Aristi dira fabori-
to, nagusitasun handiz irabazi
dituztelako partida guztiak, bai-
na Maiza-Heras bikoak gora egin
du azken bi partidetan. Hortaz,
final irekia aurreikusten da.

Hirugarren partidari, nugu-

sien mailan, Lopetegi-Monca-
dak Apeztegia I-Sainzen kontra
jokatu dute. Lopetegi-Monca-
da dira faborito argi eta garbi. Ea
Apeztegia I-Sainz bikoak ezuste-
koren bat emateko gai den.

Arratsaldean, 15:30ean, emaku-
meen txanda izango da. Mujika
II-Gorriti bikoak, Goenaga-Fer-
nandez bikoaren kontra ariko
da. Mujika, gaztea da oso, eta ez
dago maila honetako partidak jo-
katzen ohituta. Hor egon daiteke
partidaren gakoa. Gorriti ondo

BILLABONA FKE
Arratzain futbol zelaia

Publikorik ez da onartzen partiduetan

1. KADETE MAILA Larunbata 15, 11:00etan
BILLABONA F.K.E. - UROLA K.E.

PREFERENTE MAILA Larunbata 15, 15:30etan
BILLABONA F.K.E. - C.D. HERNANI

OHOREZKO KADETE MAILA Igandea 16, 11:00etan
BILLABONA F.K.E. - TOLOSA C.F.

f i t Billabona Fke



OSTEGUNA, 2021EKO MAIATZAK 13
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



IBAIA ZAINTEKO DEIA

Martxoaren amaieran, Uraren Nazioarteko Egunaren harira, Tolosako Ingurumen Zentroarekin eta herriko ikastetxeekin elkarlanean, Oria ibaiaren lehen garbiketa gauzatu zuen Tolosako Udalak. Maiatzeko lehen astean, berriz, Gipuzkoako Arrantza Federazioaren txanda izan zen, eta bigarren aldiz garbitu zuten ibaia. Aste bakoitzean, 8 metro kubiko bildu dituzte. Udalak, federazioaren lana eskertzeaz gain, ingurua zaintzeko deia egin die herritarrei. ATARIA

ZORION AGURRAK



Zorionak Manex!
Ez gaituk ahazten hitazi!

OSTEGUNA 13

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Oihana Iguararen *Hormak* liburuaren aurkezpena, Subijana etxean, 19:00etan.

Amezket. Larrondon egin beharrekolanen inguruan bilera, 19:00etan, udaletxean.

Anoeta. *Internazionalistak garelako lehen urratsa Euskal Herria*, Aska-penaren eskutik, 18:00etan gaztetxean.

Berastegi. *Fakirren ahots* liburuaz aztertuko du irakurle klubak, liburutegian, 18:00etan.

Tolosa. *Gazteak, nerabeak eta suizidioa*, sentsibilizazio saioa, Inmakulada Lanbide Ikastolan, 18:00etan.

Ikus-entzunezkoak

Anoeta. *Bideak* dokumentala, Mikelasagasti auditorioan, 18:00etan.

Tolosa. *Ekozinemaldia*, Leidorren, 19:00etan: *Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa.*

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:30. Gaurkoan Tolosalde

11:00. Elkarriketap

17:30. Gaurkoan Tolosalde

21:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. Pintxo Pote (Ander Zubillaga)

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina Asier Imazek gidatuta.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

20:00. Musikasi. Musika klasikoa.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Olarrreaga Aranburu. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro kaxkarra. Goizean hodeitza handia izanagatik, giro ateria eta lasaia izango da. Arratsaldean ordea, hodeitza are gehiago trinkotuko da eta euritara joko du. Zaparradak sarri xamar egingo ditu eta une batzuetan mardul botako du gainera. Haizea aldakor ibiliko da, arratsaldean ipar-mendebaldeko ukitu batekin eta tenperatura jaitsi egingo da, 17-18 graduan joz goia.

Bihar. Hobetzeko bidea hartuko du eguraldiak. Goizean zerua oso hodeitsu agertuko da eta tarteka euri zaparrada batzuk izango dira. Egurdetik aurrera atertu eta ostarte batzuk zabalduko dira, arratsaldean giro argiagoarekin emango dugularik. Haizea ipar-mendebaldetik ibiliko da eta tenperatura maximoak 17-18 graduan errendituko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Musikak
ez du adinik
4 urtetik aurrera

Matrikula zabalik maiatzaren 17tik 23ra

ADUNA • ALTZO • ALEGIA • ANOETA • IRURA • IBARRA • VILLABONA • ZIZURKIL

Matrikulazioa online: www.loatzo.eus • Argibideak: 943 692 619

DASTATU UZTA BERRIA

OSTIRALA, LARUNBATA ETA IGANDEA EGUERDIETAN

TOLOSATIK AUTOBUSA

ISASTEGI
~ SAGARDOEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM